



**DEIALDI GUZTIETARAKO ARAUAK**

(INFORMAZIO GEHIGARRIA I, II, III eta IV. ERANSKINETARAKO)

**IVAPekoen Eskola antolaketa eta baldintzak**

**IKASTAROEN EGUTEGIA ETA ORDUTEGIA**

<b>Administrazioko taldeak</b>	<b>Bestelako taldeak (matrikula orri pertsonalatuarekin)</b>
<p><b>5 orduko ikastaroak</b> <i>urriak 1- otsailak 7</i> Bilbo, Donostia eta Gasteiz: 08:00-14:00 Goizez bakarrik.</p> <p><b>2 orduko ikastaroak</b> <i>urriak 1- ekainak 20</i> Bilbo, Donostia eta Gasteiz: 08:00-10:00</p> <p><b>2 orduko ikastaroak 4HERako</b> <i>urriak 1- ekainak 20</i> Bilbo, Donostia eta Gasteiz: 08:00-10:00 Astelehen, asteazken eta ostiraletan.</p>	<p>Euskaltegietako beste taldeetan eskolatzen diren ikasleek, administrazioko taldeak ez direnak, tokian tokiko euskaltegiaren ordutegia eta egutegia izango dute, eta <b>matrikula orriarekin</b> arituko dira.</p> <p><b>Barnetegiko ikastaroak</b> Zornotzako Barnetegian eta Lazkaoko Maizpide Euskaltegian egin beharko dira. Egutegiak eta ordutegiak euskaltegi hauen eskaintzaren arabera izango dira. Eta ikasle hauek ere <b>matrikula orriarekin</b> eskolatuko dira.</p> <p><b>Lanorduz kanpoko</b> ikastaroak. Ikastaro presentzialak edo autoikaskuntzakoak direnean, matrikula orriarekin arituko dira eta ikasleek kasuan kasuko euskaltegiaren egutegia izango dute.</p>

**ORDU KREDITUA**

**Lanorduetako eta lanorduz kanpoko** ikastaroei dagokienez, ordu-kredituak ezartzen dituen Aginduari jarraituko zaio (Agindua, 2005eko azaroaren 30ekoa, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-erakundeetako langileen euskalduntzean aplikatuko diren ordu-kredituak ezartzen dituenen. EHAA: 2005-12-19; 239. zenb.).

Ondorioz, euskara ikastaroa hasteko, beharrezkoa izango da ordu-kredituaren saldoa **aldekoa** izatea. Ordu-kreditua ikastaroa aurrera doala agortzen bada, langileak ikastaroa bukatu arte jarraitu ahal izango du.

Ordu-kreditua agortu ondoren, dagokion hizkuntza-eskakizuna gainditu ez duen langileari ez zaio onartuko euskara ikasteko eskabide gehiago, gainditu beharreko hizkuntza-eskakizuna lortu arte.

Ordu-kredituaren sistema ziurtatzeko, maiatza/ekaineko azterketen emaitzak argitaratzen direnean, IVAPek ordu-kredituaren kontrola egingo du eta saldo negatiboan jarraitzen duten eskaera guztiak bertan behera utziko ditu.



**LANORDUETAKO IKASTALDEETARAKO MAILAKETA PROBAK**

Lanorduetako taldeak antolatzeko, IVAPek ezinbestekoa du eskatzaileen euskara-maila jakitea. Horretarako, IVAPek langilearen euskarazko maila jakin ezean, IVAPek **mailaketa probara** deituko dio. **IVAPek aurreikusten du mailaketa probak ekainean izango direla.** Mailaketa probara aurkeztu ez den langileak administrazioko taldeetan aritzeko lehentasuna galduko du.

Dena dela, eskatzailea IVAPekin eskolatu bada azken ikasturtean, azken ebaluazioa erabiliko du hurrengo ikasturteko hasiera-maila ezartzeko. Bestalde, administrazioko ikastaldeetara ez doazen eskatzaileak ez ditu deituko.

**ADMINISTRAZIOKO TALDEAK ANTOLATZEA**

Mailaketa probak egin ostean, administrazioko langileez osaturiko taldeak antolatuko ditu IVAPek hiriburuetan. Administrazioko taldeen egutegia eskatu arren talderik osatu ezin denean, IVAPeko matrikula-orria emango die ikasleei, nahi duten euskaltegi homologatuan matrikulatzeko, betiere eskatu eta baimendutako moduluan.

**MATRIKULA ORRIAREN BIDEZ FINANTZATUKO DITUEN IKASTAROAK**

➤ **LANORDUETAKO IKASTAROAK:**

Orduak egunean	Egunak astean	Orduak astean	Orduak guztira
2	4	8	Gutxienez 240
2	5	10	Gutxienez 300
5	5	25	Gutxienez 400
2 (4.HE)	3	6	Gutxienez 170
<b>BARNETEGIA</b>	<b>(4 HILABETEKOAK)</b>		

➤ **LANORDUZ KANPOKO IKASTAROAK**

**1) Aurrez aurreko, telematikoko eta mistoko ikastaroak (1.HE, 2.HE eta 3.HE)**

**Trinkoak**

Orduak egunean	Egunak astean	Orduak astean	Orduak guztira
5	5	25	Gutxienez 400

**2/3 ordukoak**

Orduak egunean	Egunak astean	Orduak astean	Orduak guztira
2	5	10	Gutxienez 300
2	4	8	Gutxienez 240
2	3	6	Gutxienez 180
2,5	3	7,5	Gutxienez 240
3	3	9	Gutxienez 270
3	5	15	Gutxienez 480

**2) Aurrez aurreko ikastaroak (4.HE)**

Orduak egunean	Egunak astean	Orduak astean	Orduak guztira
2	3	6	Gutxienez 170

**3) Autoikaskuntza edo lineako ikastaroak**

Ikasturte osokoa: 190 eskola-ordu matrikula bakoitzeko.

**\*Aurrez aurreko** ikastaroak: aurrez aurrekoak, aurrez aurreko telematikoak edota eskola batzuk aurrez aurre eta beste batzuk telematikoki eskaintzen dituzten ikastaroak. Baliabidea edozein dela ere, irakasleak eta ikasleak orduz zehatz bat bete behar dute elkarreraginean, hau da, eskola 08:00etatik 10:00etara baldin bada, bi ordu horietan elkarreraginean egongo dira, aurrez aurre zein bideokonferentziaz. Ikasle batzuk ikasgelan egotea eta beste batzuk urrutitik jarraitzea ere gerta liteke.



\* **Autoikaskuntzako ikastaroak:** Euskaltegiek zein autoikaskuntzako zentroek berariaz lineako ikastaroak emateko dituzten programen bidezko ikastaroak. Nahiz eta tarteka tutoretza edo mintza saioak izan, lan gehiena bakoitzak bere kasa antolatzen du, programa horiek bakarka eta zehaztutako ordutegirik gabe erabilia.

#### MATRIKULA ORRIEI BURUZKO OHARRAK

Matrikula orria **agiri ofiziala** eta pertsonala da; bertan ikaslearen izen-abizenak daude jasota eta ezin du beste inork erabili.

Matrikula orriaren bitartez eskatzaileak berak aukeratutako euskaltegi publikoan edo pribatu homologatuan egin dezake matrikula. Ikastaroak, betiere:

- **HABEk homologatuak** izan behar dira.
- **Iraupena:** Urritik, maiatz-ekainera bitartekoak izan behar dira. Barnetegiko ikastaroek eta egunean 5 orduko ikastaroek lauhileko iraupena izan behar dute.
- **Autoikaskuntzako ikastaroak: lanorduz kanpo egin beharko dira**, eta gutxienez 190 orduko iraupena izan behar dute. IVAPEk matrikula orri bakarra eta berezitua emango die ikasleei, euskaltegi publiko edo pribatu homologatu batean, edo autoikaskuntzako zentro homologatu batean matrikulatzeko. Autoikaskuntzako ikastaroetan izena emateko ezin izango da erabili IVAPEk ikastaro presentzialetarako ematen duen ohiko matrikula orria.

Ezinbestekoa izango da matrikula orria, IVAPEko zigilu originalarekin euskaltegian aurkeztuta izatea ikastaroa hasten denerako. Arau orokor moduan, matrikula orria euskaltegian entregatu duen langileari ikastaroaren lehen egunetik zenbatuko zaio asistentzia, nahiz eta ikaslea beranduago hasi eskolan.

**Langilea inon matrikulatzen ez bada**, ahalik eta lasterren itzuli behar du aipatutako matrikula orria Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordetzara, unibertsitateak IVAPer a bueltatzeko (**urriaren 10an baino lehen**). Matrikula orria itzultzea ezinezkoa gertatuz gero apurtu edo galdu delako, Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetzara jakinarazi beharko du inon ez dela matrikulatu, IVAPer a jakinarazteko.

Kontuan izan behar da langileak bere matrikula orria euskaltegian entregatzen duen unean gauzatzen duela ikastaroaren matrikula. Une horretatik aurrera langilea matrikulatuta dago euskaltegian eta IVAPEk ordaindu egin behar du langilearen matrikulari dagokion kostua.

Diru-baliabideen erabilera zentzuzkoa eta arrazoizkoa ziurtatu ahal izateko, langileek aprobetxamendu gokia lortu beharko dute ikasturtearen buruan.



## ESKOLETAN HASTEA

Ikastaroa hasten den egunean bertan hasi beharko du langileak eskoletara. Didaktika eta antolakuntza arrazoiak direla medio **IVAPek ez du onartuko bere deialdian ezarriko duen urriaren data baino beranduago hasterik eskoletan.**

Beraz, IVAPek bertan behera utziko ditu egun horretan eskoletan hasita ez dauden langileen eskaerak eta, ondorioz, ez du bere gain hartuko euren matrikula orrien kostua.

Eskola-hutsegiteak **ikastaroaren lehen egunetik** zenbatuko dira, nahiz eta ikaslea beranduago hasi ikastaroan.

IVAPek arrazoi hauengatik onartuko du eskolan berandu hastea: gaixotasunagatik, Erditzeagatik, adopzio edo harreragatik eta aitatasunagatik. Nolanahi ere, beranduko eskolatzea bideratzeko, baldintza hauek bete beharko dira:

- a) IVAPek alde aurretik jakin behar du langilea ez dela garaiz hasiko. Horretarako langileak Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetzara jakinarazi beharko du denboraz.
- b) Langilea hasteko prest dagoenean idatziz jakinarazi behar du erakundeak IVAPera.
- c) Galdutako eskola-orduen muga igaro gabe egotea. Alegia, eskola ordu kopuruaren %20a igaro aurretik hasi beharko du.

## ESKOLARA JOATEARI UZTEA

Eskolan hasi ondoren ikasleak ikastaroa behin betiko uztea erabakitzen badu, horren berri eman behar dio ikasleak IVAPi eskola uztea gertatzen den une berean.

Horretarako **"Jakinarazpena: euskarako eskolara joateari uztea"** izeneko inprimakia bete eta IVAPera bidali behar du ikasleak.

Inprimakia IVAPeko orrian eskura daiteke: (<https://www.ivap.euskadi.eus/informazio-orokorra-euskara-ikastaroak/z16-a3euikas/eu/> zer egin ikastaroa behin betiko uzteko?) eskola uztea jakinarazteko inprimakia).

Eskola-uztearen data inprimakia erregistratzen den egunekoa izango da. IVAPen zein beste erakunde batean erregistra daiteke. Beraz, oso garrantzitsua izango da inprimakia lehenbailehen bidaltzea IVAPera.

Azkenik, IVAPen zeregina izango da ikaslearen erakundeari eskola-uztearen berri ematea.



## IKASLEEI BURUZKO INFORMAZIOA ETA DATUEN BABESA

Euskara ikastaroa kudeatu ahal izateko ezinbestekoa da ikasleei buruzko hainbat datu pertsonal jasotzea, tratatzea, fitxategi batean biltzea eta dagokion sailari lagatzea. Horrela, IVAPek lanorduetan nahiz lanorduz kanpo ari diren ikasleen asistentzia eta ebaluazio datuak jasoko ditu, eta erakunde bakoitzari bere ikasleei dagozkienak jakinaraziko dizkio.

Lankidetzta Hitzarmenaren ondorioz jasoko diren datu pertsonalen tratamendua, bai Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak, bai datu pertsonalak gordetzen dituzten fitxategi automatizatuen segurtasun-neurrien Araudiak (ekainaren 11ko 994/1999 Errege-dekretuaren bidez onartutakoa) xedatutakoaren arabera egingo da. **Horregatik formularioan onspena eman beharko du langileak laukitxoak markatuz. Bestela eskaria ez da onartua izango.**

Lankidetzta Hitzarmenera biltzen diren langileek onartu egiten dute bertan ezarritako helburuak betetzeko jasoko diren datu pertsonalen tratamendua. Horrela, onartu egiten dute IVAPek datuak jasotzea eta dagozkien erakundeei jakinaraztea bai euren asistentziari eta ebaluazioari dagokienez, eta baita euren aprobetxamenduari buruzko txostenei dagokienez ere. Onartu egiten dute baita ere, datu-lagapenak egitea Kultura Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari, normalkuntza planaren betetze maila ebaluatzeko txostenak egin ditzan, (Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen otsailaren 22ko 19/2024 Dekretuaren 21. Artikuluan.). Onartu egiten dute azkenik, datu-lagapenak egitea Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzeko Erakundeari –HABeri-, (Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen otsailaren 22ko 19/2024 Dekretuaren 14. Artikuluan arabera).

Ikasleei buruzko datu-pertsonalak Datuak Babesteko Agentzian erregistratutako "Funtzionarioak euskalduntzea" izeneko fitxategian egongo da. Ikasleek Fitxategiko datuetara sartzeko, datuok aldatu eta deuseztatzeko eskubidea erabili nahi izanez gero, IVAPeko Idazkaritza Nagusira jo dezakete: Donostia-San Sebastian kalea, 1; 01010 Vitoria-Gasteiz.